

Senitarteen Topaketa Torreciudadan

Mendi Alai Gazte Elkartek
ikasturte osoa eta bere familiak
Ama Birjinaren esku utzi zituen

2005 Ira 29

Bilboko Mendi Alai Gazte Elkarteko lagunek parte hartu genuen pasa den Irailaren 17an, Torreciudadan izandako familia egunean. Hamasei urtez ospatu egin da egun hau, beti Irailean, ikasturte hasieraz. Izugarrizko momentua da, orain

hasten dugun hurrengo hilabeteak
Ama Birjinaren menpean jartzeko.

Mendi Alaitik, aurreko eguna joan
ginen, barikuen, kotxez. Gurasoak
etorri ziren, eta ume asko eta asko.
Bost orduko bidaia, nahiz eta luze
izan, nahiko alaitsua izan zen, abesti
eta irribarreen artean. Bidaia,
aurreko egunean egiteko abantaila,
eguna prestatuta eta ondo lo eginda
hastea da., eta umeak humore onez.

Egun euritsua izango zela esaten
zuten baina eguzkiak ere pixkanaka-
pixkanaka parte hartu nahi izan
zuen jai honetan. Ama Birjinari
oparitu genion argazkien album bat,
Mendi Alai Klubeko senitarteen
argazkiekin, familia guztiengatik
eskatuz. Hirurogei eskariak baino
gehiago egon ziren, guztiak
desberdinak.

Gero, Meza Santua. Nahiz eta jende
asko egon, otoitz egiteko une egokia
zen, jendea momentua gozatzen

zegoen eta. Meza jarrai genezakeen emandako liburua erabili genuen.

Sermoia sakona izan zen eta jendeak batzutan moztu zuen txaloka. Beste gauza batzuen artean, hitz egin zuen ea zein izan behar zen gurasoen esker oneko jarrera, seme-alaben bokazioen aurrean, nahiz eta haiek beste planak imajinatu. Eta kristau senitartearen garrantzia herrien ebanjelizazioan; honexetarako garrantzia handia dauka amen arreta haien familientzat.

Konfesio asko egon ziren. Baselizara jaitsi ginen sinadura-liburuan idazteko. Nahiko jende zain zegoen, baina merezi du, intentzio horiek gero kontutan izaten baitira Meza Santuan. Egun zoriontsua izan zen, benetan. Hara joan zen gizon batek esan zuen: “Hemen, Jaunaren hurbilago gaude.”

Mendi Alai Gazte Elkarte

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/senitarteen-topaketa-
torreciudadan/](https://opusdei.org/eu-es/article/senitarteen-topaketa-torreciudadan/) (2026 Ots 22)